



Ajangizko Udala

**MENDIETAKO FRONTOI ESTALIA ERAIKITZEKO LANEN
ESLEIPENERAKO, DOKUMENTUAK KALIFIKATZEKO
KONTRATAZIO MAHAIAREN BILKURAKO
AKTA**

1) **Bilkurari buruzko datuak**

- Bilkura-eguna: **2010eko urtarrilak 19**
- Ordua: **14:00**
- Lekua: **Udaletxeko bilera aretoa**
- Kontratuaren gaia: **Mendietako frontoi estalia eraikitze lanak**
- Esleipen-jardunbidea: **prozedura irekia**
- Non eta noiz egin den argitalpen ofiziala: **Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 244**

zenbakia, 2009ko abenduak 22. www.ajangiz.net

2) **Bertaratu direnak**

- Mahaiko kideak
 - . Mahaiburua: **Koldo Carbonell Oihartzabal, Alkatea**
 - . Mahaikideak: **Angel Luis Uribarri Gondra zinegotzia**
Saioa Pineda Aranburu, idazkaria
 - . Idazkaria: **Saioa Pineda Aranburu**

M. Infracoman S.A. eta Construccines Zabalandi enpresako ordezkariak bertaratu dira.

3) **Bilkuraren edukia eta erabakia**

2010eko urtarrilaren 15ean ospatutako batzarrean, lehiatzaileek B kartazalean aurkeztutako edukinak azaldu eta udal teknikarien esku utzi zituzten bidezko balorazioa egin zezaten.

Teknikariek egindako balorazioaren arabera, honako emaitza jaso da:



Ajangizko Udala

Enpresa	Egutegia	Memoria	Guztira
Construcciones Zabalandi S.L. / Asfaltados y Construcciones Morga S.L.	20	15	35
M. Infracoman S.A./ Zanjadores y Desmontes S.A.	10	5	15
Aiurdin Obras S.L.	10	10	20

Emaitzaren berri emanda, kontratazio-arauetan eta administrazio-baldintza zehatzen agirian ezarritakoa betez, bilkurak helburu izan du baldintza-agiriko 16. klausulako C kartazalean lehiatzaileek aurkeztutako proposamenetako dokumentuak kalifikatzea.

a) Jasotako proposamen edo parte hartzeko eskabideak

Proposamenak edo parte hartzeko eskabideak aurkezteko epean, honako hauek jaso ziren:

<u>Proposamen edo eskabidearen zk.</u>	<u>Titularra</u>
1	Aiurdin Obras, S.L.
2	UTE Infracoman S.A. / Zanjadores y Desmontes S.A.
3	UTE Construcciones Zabalandi S.L. / Asfaltados y Construcciones Morga S.L.

b) Lortutako emaitza

Enpresak	Eskaintza ekonomikoa (Lizitazio prezioa: 725.973,53 € BEZ barne)	Puntuazioa
Aiurdin Obras, S.L.	616.895,66 €	60
UTE Infracoman S.A. / Zanjadores y Desmontes S.A.	677.333,31 €	54,64
UTE Construcciones Zabalandi S.L. / Asfaltados y Construcciones Morga S.L.	718.713,79 €	51,49

Jasotako emaitzak aztertuta, honako hau da lehiakide bakoitzak lortutako puntuazio orokorra:

Enpresak	Puntuazioa
-----------------	-------------------



Ajangizko Udala

Aiurdin Obras, S.L.	80
UTE Infracoman S.A. / Zanjadores y Desmontes S.A.	69,64
UTE Construcciones Zabalandi S.L. / Asfaltados y Construcciones Morga S.L.	86,49

Jasotako emaitzak ikusita, kontratazio mahaiak **Construcciones Zabalandi S.L. eta Construcciones Morga S.L.**ren arteko UTEaren behin-behineko kontratazioa proposatzen du, pleguan azaltzen diren baldintzak kontutan hartuta.

Eta 14.30etan akta honen irakurketa eginez ekintza bukatutzat ematen da goian aipatutako egun eta tokian.

Mahaiburua

Idazkaria

Iz.: Koldo Carbonell Oihartzabal

Iz.: Saioa Pineda Aranburu